Hernaniko Udala

Gobernu plana
Plan de gobierno
2023 - 2027



Hernanirako 135 neurri eraldatzaile eta eredugarri

Agintaldian zehar gauzatuko diren proposamen zehatz eta neurgarriz osatutako Gobernu plana aurkeztu berri du Udal gobernuak. Bizitzako esparru guztietako eta herritar guztien beharrei erantzungo dien 135 neurri eraldatzaile eta arlo askotan aitzindari jasotzen dira planean.

135 propuestas transformadoras y modélicas para Hernani

El Gobierno municipal ha presentado su Plan de gobierno con propuestas concretas y medibles que se llevarán a cabo a lo largo de su mandato. 135 medidas transformadoras y, en muchos ámbitos, pioneras que responden a las necesidades del conjunto de la ciudadanía.



Herritarron bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko Gobernu plana

Agintaldi berri baten hasieran gaude. Aurrera begiratzeko garaia da, erronka berriei eusteko garaia, beti ere hernaniarrok gure herrian hobeto bizi gaitezen asmoz. Eta aurrera egiteko orduan atzera begiratzeak ere laguntzen du, azken lau urte hauek intentsoak bezain emankorrak izan direlako. Azken urteetan ereindako hazia landu eta loratzen hasteko momentua da.

Udal gobernu berria dugu, aurreko agintaldiko eskarmentua duten kideez eta zinegotzi berriez osatuta. Indarberrituta gatoz. Argitalpen honetan bertan ikusiko duzunez, aurreko astean aurkeztutako edukiz betetako Gobernu plan batekin gatoz. 135 neurriz osatuta dago, hernaniarron bizi-kalitatea hobetzeko neurri sorta eraginkorra.

Neurriok haur, gazte, heldu zein pertsona nagusiei eragingo diete, hirigunean zein inguruetako auzoetan nabarituko dira. Kultur sormena bultzatuko da, gazteek batez ere pairatzen duten etxebizitzaren arazoari indarrez helduko diogu, berdintasunerako politikak lehen lerroan jarraituko du, ingurugiroan eta trantsizio ekologikoan sakonduko dugu, mugikortasun jasangarri bat posible dela erakutsiko dugu, eta euskara, kirola eta aisialdiko ohiko lan lerroek ez dute etenik izango. Udal eskumenen baitako neurriak hartuko ditugu Tokiko merkataritza eta enplegua sustatzeko, herriko aniztasuna aberastasun bihurtuko dugu.

Badakigulako zer nahi dugun, badakigulako nolako Hernani nahi dugun, eta batez ere, badakigulako nola egin nahi dugun: zurekin batera, elkarlanean, ideiak partekatzen eta ekarpenak jasotzen. Hori baita Hernani eraldatzen jarraitzeko gako nagusia.

Gobernu plan hau dinamikoa izango da, jakitun baikara hemen aurkeztutako neurriez gain, agintaldian zehar beste hamaika proiektu, egitasmo, ideia eta soluziorekin topo egingo dugula eta plan hau neurgarria izango da konpromisoa hartzen baitugu sei hilabeteko maiztasunez planaren betekizun mailari buruzko informazio gardena emango dizugula, zure eskubidea baita udal gobernua zertan ari den zehatz-mehatz jakitea.

Eta herria eraldatzeko prozesu honetaz harro gaude zuetako askoren onespena jasotzen baitugu udaletxean bertan, edota kalean topo egiten dugunean, edota eragile eta erakunde desberdinak Gipuzkoatik eta Euskal Herri osotik, eta baita kanpotik ere, Hernanira datozenean gure eredua ezagutzera. Eredugarri bihurtzen ari gara Hernani, hernaniarrok gauzak ondo egiten ari garelako.

Herrigintzan bidelagun izaten jarraituko dugulakoan har ezazu gure besarkadarik handiena.

Hernaniko udal gobernua

Un Plan de gobierno para seguir mejorando la calidad de vida de la ciudadanía

Estamos en el inicio de un nuevo mandato. Es hora de mirar hacia adelante, de abordar nuevos retos, siempre buscando que los y las hernaniarras vivamos mejor en nuestro pueblo. Y también es pertinente mirar hacia atrás a la hora de avanzar, porque estos últimos cuatro años han sido tan intensos como fructíferos. Es el momento de regar la semilla sembrada en los últimos años y que comience a florecer.

Tenemos un nuevo gobierno municipal formado por personas con experiencia del anterior mandato y nuevos concejales y concejalas. Venimos con fuerzas renovadas. Como podrás comprobar en esta misma publicación, disponemos un Plan de gobierno cargado de contenidos, que presentamos la semana pasada. Consta de 135 medidas eficaces para mejorar la calidad de vida de los y las hernaniarras.

Estas medidas afectarán a niños y niñas, jóvenes, adultos y personas mayores, dejarán su impronta tanto en el centro de la ciudad como en los barrios. Se impulsará la creatividad cultural, abordaremos con fuerza el problema de la vivienda que sufren sobre todo los y las más jóvenes, la política de igualdad seguirá en primera línea, profundizaremos en la transición ecológica, demostraremos que una movilidad sostenible es posible, y seguiremos apostando por las líneas habituales de trabajo en euskera, deporte y ocio. Tomaremos las medidas que estén en nuestras manos para fomentar el comercio local y el empleo, haciendo de nuestra diversidad nuestra principal fuente de riqueza como pueblo.

Porque sabemos lo que queremos, sabemos qué modelo de Hernani queremos y, sobre todo, porque sabemos cómo queremos hacerlo: contigo, colaborando, compartiendo ideas y recibiendo aportaciones. Porque esa es la clave para seguir transformando Hernani.

Este Plan de gobierno será dinámico, ya que somos conscientes de que, además de las medidas aquí presentadas, a lo largo de esta legislatura nos encontraremos con nuevos proyectos, iniciativas, ideas y soluciones. Además, este Plan será medible porque nos comprometemos a informarte con una periodicidad de seis meses sobre el grado de cumplimiento del Plan, de manera transparente, ya que es tu derecho conocer con exactitud lo que está haciendo tu gobierno municipal.

Y estamos orgullosos y orgullosas de este proceso de transformación del pueblo en el que estamos embarcadas, porque muchos de vosotros y vosotras nos hacéis llegar vuestra aprobación al propio ayuntamiento, o cuando nos encontramos en la calle, o cuando diferentes agentes e instituciones vienen a Hernani desde otros pueblos de Gipuzkoa y de toda Euskal Herria, y también de fuera, a conocer nuestro modelo. Estamos convirtiendo a Hernani en un ejemplo porque los y las hernaniarras estamos haciendo las cosas bien.

Confiando en que seguiremos siendo compañeros y compañeras de viaje en este proceso de transformación y mejora de nuestro pueblo, te mandamos un fuerte abrazo.

Gobierno municipal de Hernani

Gobernu taldearen osaera

Composición del equipo de gobierno



Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEA

alkatetza@hernani.eus
943 337010



Patxi Ibarguren Etxeberria

TOKIKO GARAPENA / Desarrollo local


p-ibarguren@hernani.eus
943 337010



Itsaso Lekuona Legorburu

KULTURARTEKOTASUNA, LANKIDETZA ETA BERDINTASUNA / Igualdad, cooperación e interculturalidad

ilekuona@hernani.eus
943 337010



Axier Mingo Arruabarrena

EUSKARA, HEZKUNTZA ETA KIROLA / Euskara, Educación y Deporte.

amingo@hernani.eus
943 337010



Aitor Lukas Solano

GAZTERIA ETA PARTAIDETZA / Juventud y Participación.

alukas@hernani.eus
943 337010



Amaia Miner Canflanca

ZINEGOTZIA / Concejala

aminer@hernani.eus
943 337010



Ainara Atorrasagasti Urizar

HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA ETXEBIZITZA / Urbanismo, Medioambiente y Vivienda

aatorrasagasti@hernani.eus
943 337010



Aitor Huizi Izagirre

KULTURA

ahuizi@hernani.eus
943 337010



Urko Lazkoz Fernandes

ZERBITZU PUBLIKOAK /Servicios Públicos

ulazkoz@hernani.eus
943 337010



Oier Agirresarobe Lizaso

OGASUNA / Hacienda

o-agirresarobe@hernani.eus
943 337010



Kistiñe Rodriguez Polaina

ZINEGOTZIA / Concejala

krodriguez@hernani.eus
943 337010

“Hernani eraldatzen jarraitzeko prozesuan iparrorratza izango da Gobernu plan hau”



Bigarren agintaldiari indarrez ekin dio Xabier Lertxundi Asteasuinzarrak eta ostegunean udaletxean bertan 135 neurriko Gobernu plana aurkeztu zuen berak eta bere taldeak herritarren artean ,“hernaniarrok hobeto bizi gaitezen asmoz egindako plana”.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

HERNANIKO ALKATEA

Zergatik behar du udal gobernuak Gobernu plan bat?

Hernani handia da, dinamika ekonomikoa, soziala eta kultur mailakoa bizia du, hernaniarrok nahi dugu herri euskaldun, feminista, jasangarri eta anitz batean bizi, elkartasunean eta elkarlanean oinarrituko dena. Gure haur eta pertsona nagusiek behar dute ondo bizi, gazteek behar dute aisialdiaz gozatu eta emantzipazioa azkartu, behar dugu tokiko merkataritza aberatsa, behar dugu hernaniar guzti-guztiok elkarbizitza atseginean bizi. Hori guztia lortzeko edozein gobernuk plan bat behar du izan, eta horretantxe aritu gara azken asteotan, gobernuarentzat iparrorratza izango den plan bat osatzen.

“Hernani eraldatze prozesu sakon batean murgildurik dago erronka berriei aurre egiteko”

Plan honek zeri erantzuten dio?

Aurreko agintaldian zerbitzu sozial berriak sortu eta aurrekoak indartu genituen, gobernatzeko eredu berri bat jarri genuen martxan eta herri ekonomia indartu genituen, beste askoren artean. Eta egindako guztiaz oso pozik daude. Burujabetza lan ildoa ere martxan jarri genuen eta hori sakontzen jarraituko dugu herrigintzak ez duelako amaierarik. Erronka handiak datoz, eta nire iritziz, Hernani ez dago aldaketa xumeetan gelditzeko unean, Hernani eraldatze prozesu sakon batean murgildurik dago erronka berri hauei aurre egiteko, eta erronka horiei aurre egiteko moduetan asmatzeko. Herritarren eta eragileekin elkarlanean aritu behar dugu, denon artean herri orekatu, zuzen eta biziagoa izateko. Plan honek beste urrats bat egingo du norabide horretan

“Herritarren eskubidea da gobernua zertan ari den jakitea eta gure obligazioa eskubide hori errespetatzea”

Zertan datza plana?

Neurri sorta batez osatua dago, 135 neurriz hain zuzen ere. Urteak daramatzagu udalgintzan, herritarrekin eta eragileekin ditugun harremanetatik herritarren kezkak, beharrak, nahiak ezagutzen ditugu, udal langileek ere informazio handia eskaintzen digute eta udal gobernukideok ere badugu herri ikuspegi zabala. Ezagutza horretatik eta dugun herri proiektuan oinarrituta datozen lau urteotako argazkia egiten aritu gara. Are gehiago, datorren hamarkadarako oinarriak jartzen ari garela esango nuke

Ostegunean udaletxean egindako aurkezpen ekitaldian esan zenuen plana dinamikoa izango dela.

Plan honek 135 neurri ditu, baina jakin badakigu 2027ra iritsi bitartean neurri sorta honetaz gain, beste hainbat egitasmo, proiektu, ideia izango ditugula esku artean. Neurri hauetaz gain, sortuko diren aukera eta arazo berriei irtenbidea emango diegu, baina 135 neurri hauek bete beharrekoak izango dira. Horrela jendeak baloratu ahal izango du gobernu talde honek agindutako helburuak bete dituen ala ez.

“Datorren hamarkadarako oinarriak jartzen ari garela esango nuke”

Neurgarri izango dela ere esan zenuen.

Agintaldi osoan zehar 6 hilabeteko maiztasunez iragarriko dugu zein neurri beteko ditugun eta agindutakoak zein egoeratan dauden. Uste dut herritarren eskubidea dela gobernua zertan ari den jakitea eta gobernuaren obligazioa eskubide hori errespetatzea.

Zer nabarmenduko zenuke plan honetatik?

Planaren osotasuna. Neurri guztien arteko osotasuna nabarmenduko nuke. Hasi azpiegiturak berritzetik edo eraikitzetik, zerbitzu sozial indartsuak eskaintzera, tartean garbitasuna edo herriko kolektibo desberdinek dituzten beharrak kontuan izanik edo auzo desberdinetan egingo ditugun jarduketak kontuak izanik. Plan batzuk beste batzuk baino ikusgarriagoak izango dira eta aurrekontu handiagoa eskatuko dute, baina askotan neurri xumeenak dira gure

"Este Plan de gobierno será la brújula que nos guíe para seguir transformando Hernani"

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra ha iniciado con fuerza su segundo mandato y este mismo jueves, en el Ayuntamiento, presentó a la ciudadanía un Plan de gobierno de 135 medidas, "un plan para que los y las hernaniarras vivamos mejor".

¿Por qué el gobierno municipal necesita un Plan de gobierno?

Hernani es un pueblo grande, con una dinámica económica, social y cultural intensa. Los y las hernaniarras queremos vivir en un pueblo euskaldun, feminista, sostenible y plural, en el que primen la solidaridad y la colaboración mutua. Nuestra infancia y nuestras personas mayores necesitan vivir bien, la juventud necesita disfrutar del ocio y que se pueda emancipar antes, necesitamos un comercio local rico, necesitamos que todas y cada una de las personas que vivimos en Hernani podamos convivir de forma amable. Para conseguirlo, cualquier Gobierno debe tener un plan, y eso es lo que hemos estado haciendo en las últimas semanas, un plan que sea una brújula para el Gobierno.

¿A qué responde este plan?

En el anterior mandato creamos nuevos servicios sociales y reforzamos los que ya teníamos, pusimos en marcha un nuevo modelo de gobernanza y reforzamos la economía local, entre otras muchas iniciativas. Y estamos muy satisfechos y satisfechas de todo lo que hemos hecho hasta ahora. También pusimos en marcha la línea de trabajo "Hernani Burujabe" en la que seguiremos profundizando porque en nuestro modelo de municipalismo siempre hay tareas que realizar. Vienen grandes retos y en mi opinión Hernani no está en el momento de quedarse en cambios menores, Hernani está inmersa en un profundo proceso de transformación para afrontar estos nuevos retos, y para acertar en la forma de afrontarlos. Tenemos que trabajar codo con codo con la ciudadanía y las asociaciones locales para lograr un pueblo equilibrado, justo y más vivo, entre todos y todas. Este plan dará un paso más en esa dirección.

¿En qué consiste el plan?

Se trata de un conjunto de medidas, concretamente 135. Llevamos años de trabajo en el municipalismo y conocemos las inquietudes, las necesidades, los deseos de la ciudadanía gracias a la comunicación directa que mantenemos con los vecinos y vecinas y las entidades de Hernani. De la plantilla municipal también recibimos mucha información y las personas que formamos el gobierno municipal también tenemos una visión amplia de nuestro pueblo. Desde ese conocimiento y basándonos en el proyecto que tenemos para Hernani, hemos estado trabajando en la fotografía que queremos para los próximos cuatro años. Es más, diría que estamos poniendo las bases para la próxima década.

En el acto de presentación celebrado el jueves en la casa consistorial, usted dijo que el plan será dinámico.

Este plan consta de 135 medidas, pero somos conscientes de que hasta 2027, además de este paquete de medidas, tendremos entre manos otros proyectos, iniciativas e ideas. Además de estas medidas, daremos solución a las nuevas oportunidades y problemas que surjan, pero estas 135 medidas serán de obligado cumplimiento. Así la gente podrá valorar si este equipo de gobierno ha cumplido o no los objetivos prometidos.

También dijo que sería medible.

Durante todo el mandato anunciaremos con una periodicidad de 6 meses las medidas que vamos a cumplir y el estado en el que se encuentra el resto. Creemos en el derecho de la ciudadanía a conocer lo que está haciendo el gobierno, por lo que la obligación del gobierno de dar respuesta a ese derecho.

¿Qué destacaría de este plan?

Que es muy completo. Destacaría la integridad de todas las medidas. Desde la renovación de infraestructuras existentes y la construcción de nuevas, a la prestación de unos servicios sociales fuertes, desde la limpieza de las calles a la respuesta a las necesidades de los diferentes colectivos de Hernani, pasando por actuaciones en los diferentes barrios. Algunos planes serán más espectaculares que otros y exigirán un presupuesto mayor, pero muchas veces las medidas más humildes son las que más pueden mejorar el día a día de cada hernaniarra. Para mí poner un servicio de ayuda para que las personas mayores puedan salir de casa es tan importante como un proyecto urbanístico de gran presupuesto.

Ha mencionado medidas con grandes presupuestos.

Sí. Vamos a poner en marcha los proyectos de más calado de los últimos años. Medidas que van a determinar el futuro de Hernani. Por un lado, la transformación del ámbito que ha quedado libre tras el derribo del antiguo edificio de la Ikastola Urumea. Ahí queremos construir un párking subterráneo y un nuevo equipamiento cultural. Y muy relacionado con ello están los proyectos de reforma del paseo de los Tilos y la bulevarización de la calle Izpizua. Por otro lado, también será muy importante el plan urbanístico que se va a desarrollar en el barrio de la Florida, donde antes estaba la fábrica de ladrillos. En este ámbito se construirán 308 viviendas públicas y se revitalizará completamente una zona degradada. Pero como he comentado anteriormente, todas las medidas son importantes, tengan el presupuesto que tengan.

---

eguneroko bizitzan gehien eragiten digutenak. Niretzat adinekoak etxetik ateratzeko laguntza zerbitzua jartzea aurrekontu handiko beste neurri bat bezain inportantea da.

"Kultur ekipamendua eraikitzen hasiko gara Urumean eta babes ofizialeko 308 etxebizitza Floridan"

Aurrekontu handiak dituzten neurriak aipatu dituzu.

Bai. Azken urteetako egitasmo potoloenei hasiera emango diegu. Etorkizun luzerako izango diren neurriak. Batetik, Urumea Ikastolaren eraikin zaharra bota ondoren geratu den gunearen eraberritzea. Hor lur-azpiko parkina eta kultur ekipamendu berria eraiki nahi ditugu. Horri lotuta ondoren joango lirateke Ezkiaga pasealekuaren eraberritzearen eta Izpizua kalearen bulebarizazioaren proiektuak. Bestetik, gure herriaren garapenean oso garrantzitsua izango da ere Florida auzoan, lehen adreilu fabrika zegoen lekuan, joango den hirigintza garapena. Bertan 308 etxebizitza publiko joango dira eta degradatua dagoen gune bat guztiz biziberrituko du etxebizitzarako aukera emanez. Baina lehen aipatu dudan moduan, neurri guztiak dira garrantzitsuak nahiz eta hainbesteko aurrekontua eskatu ez.

Hernaniarron bizi-kalitatea hobetzeko 135 neurriko gobernu plana

Plan de gobierno de 135 medidas para mejorar la calidad de vida de los y las hernaniarras



1 ETXEBIZITZA VIVIENDA




Hernani etxebizitza gune tentsionatua izendatzea

Plenoak hala eskatuta, Udalak tramiteak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak Hernani eremu tentsionatua izendatzeko, alokairuaren prezioa mugatu ahal izateko.

Declarar Hernani zona tensionada de vivienda

A petición del Pleno, el Ayuntamiento tramitará ante el Gobierno Vasco la declaración de Hernani como zona tensionada, con el fin de limitar el precio del alquiler.

2 ETXEBIZITZA VIVIENDA



Babes publikoko 308 etxebizitza eraikitzea Florida auzoan

Degradatutako eremu hau biziberrituko da eta babes publikoko etxebizitzak eraikiko dira, besteak beste, gure gazteen emantzipazioa errazteko.

Construir 308 viviendas de protección pública en la Florida

Revitalizaremos esta zona degradada y construiremos viviendas de protección pública para, entre otras cosas, facilitar la emancipación de nuestros jóvenes.

3 ETXEBIZITZA VIVIENDA



Etxebizitza hutsen errolda egitea

Etxebizitza hutsen errolda osatuko da eta jarraipen iraunkorra egingo zaio, legezko tresna guztiak erabiliz etxe hauen merkaturatzea sustatzeko.

Elaborar el censo de viviendas vacías

Haremos un seguimiento a tiempo real del censo de viviendas vacías, utilizando todos los instrumentos legales para promover su salida al mercado.

4 ETXEBIZITZA VIVIENDA



Etxebizitzaren behatokia martxan jartzea

Datuen jarraipen iraunkorra egingo du: prezioak, eskaintza, eskaria... Etxebizitza eskubidea bermatzeko bidean, ezinbesteko tresna.

Poner en marcha el observatorio de vivienda

Realizaremos un seguimiento permanente de precios, oferta, demanda... Se trata de una herramienta imprescindible para garantizar el derecho a la vivienda.

5 ETXEBIZITZA VIVIENDA



Alokairuzko etxebizitzak lehenestea

Promozio berrietan Udalak eskuratuko dituen etxebizitza guztiak alokairu sozialera bideratuko dira, urtez urte gure parke publikoa handituz.

Priorizar las viviendas de alquiler

Todas las viviendas que el Ayuntamiento vaya adquiriendo en las nuevas promociones se destinarán al alquiler social, aumentando año tras año el parque público municipal.

6 HIRIGINTZA URBANISMO



Lur azpiko aparkalekua Urumea zegoen lekuan

Kultur ekipamenduaren azpian eraikiko den aparkalekuari esker, erdigunea askoz atseginagoa eta seguruagoa izango da oinezkoentzat.

Parking subterráneo en el espacio del antiguo edificio de Urumea

El aparcamiento público que se construirá bajo el nuevo equipamiento cultural contribuirá a que el Centro sea mucho más amable y seguro para peatones.

7 HIRIGINTZA URBANISMO



Ezkiaga eta Izpizuaren bulebarizazioa

Hernaniko erdigunea eraldatuko duen egitasmo honen proiektua legegintzaldi honetan egingo da eta bizilagunekin batera diseinatuko dugu.

Bulevarización de Los Tilos e Izpizua

Este proyecto, que transformará el centro de Hernani, se definirá en esta legislatura junto con los vecinos y vecinas.

8 HIRIGINTZA URBANISMO



Portu-Elizatxo igogailua egitea

Portu-Elizatxo eta Alde Zaharra lotuko du, irisgarritasuna hobetuz. Tramitazioa hasita dago eta agintaldi honetan amaituta egongo da.

Construir el ascensor de Portu-Elizatxo

Unirá Portu-Elizatxo con el Casco Viejo mejorando la accesibilidad. La tramitación está iniciada y concluirá en esta legislatura.

9 HIRIGINTZA URBANISMO



Kiroldegiko barruko espazioak berrantolatzea

Betebehar berriei erantzuteko, hainbat erreforma egingo ditugu kiroldegian. Lehen fasean, kirol-kluben espazioak hobetuko ditugu.

Reordenación de los espacios interiores del polideportivo

Respondiendo a nuevas demandas, vamos a realizar varias reformas en el polideportivo. En una primera fase mejoraremos los espacios de los clubes deportivos.

10 **HIRIGINTZA**
URBANISMO



Terrazen ordenantza berria egitea

Urteetako eskaerari erantzunez ordenantza berria indarrean jarriko dugu behar desberdinen arteko oreka bilatuz.

Elaborar una nueva ordenanza de terrazas

La nueva ordenanza es una demanda de muchos años que va a entrar en vigor con el objetivo de buscar el equilibrio entre diferentes necesidades.

11 **HIRIGINTZA**
URBANISMO



Internet zuntz optiko publiko-komunitarioa Alde Zaharrean

Alde Zaharreko komertzio eta bizilagunek banda zabaleko Internet izango dute. Landa guneetako etxe eta baserriei zerbitzua bermatuko zaie.

Fibra óptica público-comunitaria en el Casco Viejo

Los comercios y viviendas del Casco Viejo dispondrán de Internet de banda ancha. Asimismo, se garantizará el servicio a los caseríos y casas rurales.

12 **HIRIGINTZA**
URBANISMO



Alde Zaharra birgaitzeko plan berezia

Lantzen ari garen dokumentua bizilagunekin partekatuko dugu. Helburua da etxeek egungo beharretara egokitzeko aukera gehiago izatea.

Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico

Compartiremos con los vecinos y vecinas el documento que estamos elaborando para que las viviendas puedan adaptarse a las necesidades actuales.

13 **HIRIGINTZA**
URBANISMO



Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, herritarrekin

HAPO berria osatzen hasiko gara, garai eta behar berrietara egokitzeko eta denentzat lekua izango duen herri bat antolatzeko.

Elaborar el nuevo Plan General junto con la ciudadanía

Comenzaremos a elaborar el nuevo PGOU para adaptarlo a los nuevos tiempos y demandas y planificaremos un municipio en el que tengan cabida todos y todas.

14 **HIRIGINTZA**
URBANISMO



Urbietako ibilgailurik gabeko gunea egonkortzea

Eremuaren erabilera handiaren aurrean, orain arte behin-behineko egoeran egon diren elementuak egonkortuko ditugu, hasitako peatonalizazioa bukatuz.

Consolidar la zona libre de vehículos de Urbieta

Visto el gran uso de la zona, consolidaremos los elementos que hasta ahora eran provisionales, finalizando la peatonalización iniciada.

15 **HIRIGINTZA**
URBANISMO



Lizeagako parkea eta aparkalekua hobetzea

Aparkaleku berriak egin eta parkea hobetuko dugu, eremu osoaren biziberritze prozesuaren baitan: trafikoa ordenatu, oinezkoentzako bideak...

Mejorar parque y aparcamiento en Lizeaga

Construiremos nuevos aparcamientos y mejoraremos el parque, dentro del proceso de revitalización de toda la zona: ordenación del tráfico, peatonalización...

16 KULTURA



Kultur ekipamendu berria izango du Hernanik

Eraikin berriaren diseinua ideien lehiaketa bidez aukeratuko da eta kulturgune berriaren erabilera Kultur Mahaiaren laguntzaz definituko da.

Hernani contará con un nuevo equipamiento cultural

El diseño de este nuevo edificio se elegirá mediante concurso de ideas y el uso del espacio cultural se definirá con la ayuda de la Mesa de Cultura.

17 KULTURA



Ave Mariako Sormen Gunea martxan jartzea

Ave Maria eraikinean sorkuntzarako gunearen behin-betiko proiektua egingo dugu, legegintzaldi honetan martxan jartzeko.

Poner en marcha el espacio creativo de Ave María

Vamos a elaborar el proyecto definitivo del edificio Ave María para poner en marcha el espacio creativo esta legislatura.

18 KULTURA



Sandiusterri birgaitzea

Espazio berria eraiki, azpiegituraz hornitu eta abian jarriko da: 80 lagunentzako balio anitzeko gela, musika lokalak eta dantzarako aretoa.

Rehabilitar Sandiusterri

Dotaremos de elementos e infraestructuras al nuevo espacio, que contará con una sala polivalente para 80 personas, locales de música y sala de danza.

19 KULTURA



San Joan Konpartsak erabiltzeko lokal berriaren hornikuntza

Udalak San Joan Konpartsak erabiltzeko lokal berria hornitu eta martxan jarriko du.

Dotar de un nuevo local a la Comparsa San Joan

El Ayuntamiento habilitará un nuevo local para la Comparsa San Joan de Hernani.

20 KULTURA



Sorkuntza beka handitzea

Sorkuntza Bekaren diru kopurua handituko da eta baldintzak zabaldu, sortzaileen proposamenak ez mugatze aldera.

Ampliar la beca a la creación artística

Se incrementará el importe de la beca para personas creadoras y se ampliarán las condiciones para no limitar las propuestas de los y las creadoras.

21 KULTURA



Bertako sortzaileen lanak ezagutaraztea

Herriko artistei beren sormen lanak ezagutzeko aukera berriak emango zaizkie, katalogo baten bidez eta webgunean.

Dar a conocer los trabajos de artistas locales

Se ofrecerá a los y las creadoras de Hernani nuevas vías para dar a conocer sus creaciones a través de un catálogo y una web.

22 KULTURA



Liburutegia herrira zabaltzea

Kultur etxetik kanpoko azpiegiturak erabiliko dira eta Hernanin dauden bi «libguneak» indartu, bertan irakurketak, ipuin kontaketak... antolatzeko.

Sacar a la calle la biblioteca municipal

Se utilizarán infraestructuras externas a la Casa de Cultura y se reforzarán los dos «libgunes» existentes, organizando lecturas, cuenta cuentos...

23 LANKIDETZA / COOPERACIÓN



"Hariak" erresistentzia istorioen zinemaldia

Munduan zehar ematen diren giza eskubideen urraketen aurrean antolatutako erresistentziei oihartzuna emateko sortu da.

Festival de historias de resistencia "Hariak"

Este festival de cine se ha creado para dar eco a las resistencias organizadas ante las violaciones de Derechos Humanos que se producen en el mundo.

24 KULTURARTEKOTASUNA / INTERCULTURALIDAD



Harrera Bulegoa egonkortzea

Hernanira bizitzera datozenei harrera egokia egin behar diegu. Horretarako Harrera Bulego Integral berria egonkortu eta urtero ongi etorri saio bat egingo dugu Udaletxean.

Consolidar la Oficina de Acogida

La nueva Oficina Integral de Acogida tiene como objetivo dar un recibimiento adecuado a quienes vienen a vivir a Hernani. Se organizará una sesión anual de bienvenida.

25 KULTURARTEKOTASUNA / INTERCULTURALIDAD



Eraso arrazistei aurre egiteko protokoloa martxan jartzea

Hernaniko eragileekin batera, protokolo bat landuko da eraso arrazisten aurrean nola jardun adosteko.

Poner en marcha un protocolo para combatir las agresiones racistas

En colaboración con las asociaciones sociales de Hernani se elaborará un protocolo de actuación ante agresiones racistas.

26 KULTURARTEKOTASUNA / INTERCULTURALIDAD



Arrazismoa prebenitzeko zurrumurruen aurkako tailerrak egitea

Estereotipoek, aurreiritziek eta zurrumurruek errealitatea nola desitxuratzen duten aztertzeko herritarrei bizikidetza hobetzeko tresnak emango dizkiegu.

Talleres contra rumores para prevenir el racismo

Facilitaremos a la ciudadanía herramientas para mejorar la convivencia y comprobar cómo los estereotipos, prejuicios y rumores distorsionan la realidad.

27 LANKIDETZA / COOPERACIÓN



Garapenerako lankidetzako proiektuak babesten jarraitzea

Herrien arteko elkartasunezko harremanak bultzatu eta sentsibilizazio ekimenak antolatuko dira.

Seguir impulsando proyectos de cooperación al desarrollo

Fomentaremos las relaciones solidarias entre los pueblos y organizaremos iniciativas para sensibilizar a la ciudadanía sobre las diferentes realidades.

28 **BERDINTASUNA**
IGUALDAD



Hernaniko IV. Berdintasun plana egitea

Politika feministetan pauso berriak emateko Hernaniko IV. Berdintasun plana egingo da.

Elaborar el 4º plan de igualdad de Hernani

Con el fin de dar nuevos pasos adelante en políticas feministas se elaborará el 4º Plan de Igualdad de Hernani.

29 **BERDINTASUNA**
IGUALDAD



Hernaniko ibilbide morea zabaltzea

Berdintasun Kontseiluarekin elkarlanean, kale izendegian dagoen desorekari aurre egiten jarraituko dugu, emakume* izenak lehenetsiz.

Ampliar el "Ibilbide Morea"

En colaboración con el Consejo de Igualdad, seguiremos haciendo frente al gran desequilibrio existente en nuestro callejero, priorizando los nombres de mujeres*.

30 **BERDINTASUNA**
IGUALDAD



Zaintza lanen gainean herria sentsibilizatu eta trebatzea

Zaintza lanetan, erantzunkidetasunaren alde egingo dugu, zaintzaileen egoera hobetzeko. Besteak beste, komunikazio kanpainak egingo dira.

Sensibilizar y formar a la población sobre los cuidados

Incentivaremos la corresponsabilidad en las labores de cuidados para mejorar la situación de las cuidadoras. Entre otras cosas, se harán campañas de comunicación.

31 **BERDINTASUNA**
IGUALDAD



Indarkeria matxistari aurre egiteko aholkularitza egonkortzea

Diskriminazio eta indarkeria egoera ezberdinak bizi dituzten emakumeentzako aholkularitza juridikoa egonkortuko dugu.

Consolidar el asesoramiento para combatir la violencia machista

Afianzaremos el servicio de asesoramiento jurídico a mujeres que sufren situaciones de discriminación y violencia.

32 **BERDINTASUNA**
IGUALDAD

Emakumeontzako
Jabetze eskola
Escuela de Empoderamiento para mujeres
HERNANI

Jabetze Eskolan neska gazteentzako eskaintza handitzea

Emakumeentzako jabetze eskolaren programazioa egokituko da neska gazteen parte hartzea handitzeko.

Ampliar la oferta para las jóvenes en la Escuela de Empoderamiento

Adecuaremos la programación de la Jabetze Eskola para mujeres con el fin de promover la participación de las más jóvenes.

33 **BERDINTASUNA**
IGUALDAD



Parekidetasuna lantzeko tailerrak gizonentzat

Egun dauden botere desorekei aurre egiteko, maskulinitateari eta parekidetasunari buruzko saioak egingo dira gizonekin.

Talleres para hombres sobre paridad

Para hacer frente a los desequilibrios de poder existentes, se realizarán sesiones sobre masculinidad y paridad dirigidas al sexo masculino.

34 BERDINTASUNA/HEZKUNTZA IGUALDAD/EDUCACIÓN



Ikastetxeetan parekidetasuna eta sexu aniztasuna sustatzea

Genero-rolak eta sexu-hezkuntza lantzeko, herriko ikastetxeetan urte luzez Udalak sustatu duen hezkidetza programa berrituko dugu.

Promover la paridad y la diversidad sexual en los centros educativos

Renovaremos el programa de coeducación que lleva años promoviendo el Ayuntamiento en los centros escolares para trabajar los roles de género y la educación sexual.

35 BERDINTASUNA IGUALDAD



Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa koordinatzea

Indarkeria matxistari aurre egiteko erakunde arteko protokoloa (Osakidetza, Ertzaintza, anbulategia, Udala) koordinatzen jarraituko dugu.

Coordinar el protocolo contra la violencia machista

El Ayuntamiento continuará coordinando el protocolo interinstitucional contra la violencia machista, del que forman parte también Osakidetza, Ertzaintza y el ambulatorio.

36 BERDINTASUNA IGUALDAD



Kulturarteko Plaza Feministaren erreferentzialtasuna indartzea

Programazio propioa zabaltzeaz gain, zerbitzuak eskaintzen jarraituko du: Jabetze Eskola, sexu eta bikote aholkularitza, aholkularitza juridikoa...

Reforzar la referencialidad de la Plaza Feminista Intercultural

Además de ampliar su programación propia, continuará ofreciendo servicios como la Escuela de Empoderamiento, asesoría sexual y de pareja, asesoría jurídica...

37 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



Energia udal bulegoa indartzea

Kontsumoaren murrizketa eta efizientzia energetikoa sustatzeko xedez, herritarrei zein enpresei zuzendutako aholkularitza zerbitzua hobetuko dugu.

Afianzar la oficina municipal de energía

Con el objetivo de promover la reducción del consumo y la eficiencia energética, mejoraremos el servicio de asesoramiento a ciudadanía y empresas.

38 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

enherkom
argi eta garbi

Energia burujabetza sustatzea

Herritarrek sortutako proiektuak babesten eta laguntzen jarraituko du Hernaniko Udalak.

Fomentar la soberanía energética

El Ayuntamiento de Hernani continuará defendiendo y apoyando los proyectos energéticos puestos en marcha por la ciudadanía.

39 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



Kaleko argiteria publikoa berritzen jarraitzea

LED argiak jartzen jarraituko dugu, kontsumoa murrizteko helburuari beste bulkada bat emanez.

Continuar con la renovación del alumbrado público

Continuaremos con la instalación de luces LED y con ello reduciremos el consumo.

40 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



Udal eraikinen autosufizientzia energetikorantz

Udal-eraikinetan energia aurrezteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko neurriak hartuko ditugu, Europako zuzentarauak betetze aldera.

Caminar hacia la autosuficiencia energética de los edificios municipales

Adoptaremos medidas para el ahorro energético y el uso de energías renovables en los edificios municipales, en cumplimiento de las directivas europeas.

41 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



Plaka fotovoltaikoak zabaltzeko plana

Ahalik eta gehien instalatzea da helburua eta, eraikin publikoen estalkietan jartzeaz gain, horretarako propio eraikitako estalkietan jartzeko aukera landuko dugu.

Plan de instalación de placas fotovoltaicas

El objetivo es instalar el máximo número posible y, además de colocarlas en edificios públicos, se trabajará la posibilidad de colocarlas en cubiertas construidas al efecto.

42 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



Baso lurzoruak erosteko programan sakontzea

Bertako zuhaitzekin birlandatzeko lurrak erosten jarraituko dugu. Hazitegi eta mintegi bat publikora irekiko dugu, eragileekin elkarlanean.

Profundizar en el programa de adquisición de suelos forestales

Seguiremos comprando parcelas para replantarlas con árboles autóctonos. Abriremos al público un vivero y un seminario en colaboración con agentes locales.

43 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA




Hernaniko aire kalitatearen neurketa hobetzea

Bigarren neurgailu bat instalatuko da, baita datuak denbora errealean ezagutzeko webgune bat ere.

Mejorar la medición de la calidad del aire en Hernani

Se instalará un segundo medidor y en un nuevo sitio web se podrán conocer los datos en tiempo real.

44 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



Berrerabilpena sustatzeko konponketa tailerra Karabelen egitea

Materialak berrerabiltzeko erronkari aurre eginez, tailerrak egingo ditugu eta "Ez bota- berrerabili" webgunea jarriko dugu martxan.

Taller de reparación para fomentar la reutilización

Ante el reto de reutilizar materiales y productos, pondremos en marcha un taller en Karabel, así como la web "No lo tires, reutiliza".

45 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA



Zero Waste ziurtagiriaren konpromisoak betetzea

Europako ziurtagiria jasotzearekin batera, Hernanik urtero zero zabor norabidean hobekuntzak egiteko konpromisoak beteko ditu.

Cumplir con los compromisos del certificado Zero Waste

Junto con la certificación europea, Hernani asumió el compromiso anual de ir mejorando sus políticas para lograr el objetivo compartido de "residuo cero".

46 **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**
MOVILIDAD SOSTENIBLE



Osinaga eta Santa Barbara atseginagoak egitea

Osinagako eta Santa Barbarako bideak atseginagoak eta seguruagoak izan daitezen, oinezkoentzako errei bat margotuko da.

Hacer más amables las vías de Osinaga y Santa Bárbara

Se habilitará un carril peatonal para que los paseos por Osinaga y Santa Bárbara sean más seguros y amables.

47 **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**
MOVILIDAD SOSTENIBLE



Hernaniko mugikortasun plan berria egitea

Oinez, bizikleta eta garraio publikoa lehenetsiko dira, oinezkoentzako bideak egokituz, bidegorriak zabalduz eta txukunduz.

Elaborar el nuevo plan de movilidad de Hernani

Se priorizará la movilidad a pie, en bicicleta y en transporte público, adaptando las vías peatonales y ampliando y mejorando la red de bidegorris.

48 **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**
MOVILIDAD SOSTENIBLE



Hernani-Galarreta-Donostia bidegorriak izapidetzea

Hernani Chillida-Lekurekin eta Errekalderekin eta Miramonekin lotuko dituen bidegorriaren izapideak egingo ditugu Aldundiarekin batera elkarlanean eraikitzeko.

Tramitar los bidegorris Hernani-Galarreta-Donostia

Daremos los pasos necesarios para hacer realidad los bidegorris que unirán Hernani con Chillida-Leku / Rekalde y Miramón, para construirlas en colaboración con la Diputación.

49 **ZERBITZU SOZIALAK**



Auzozaintza programa auzo guztietara zabaltzea

Bakardade egoera hauskorrean dauden adinekoen bizi kalitatea hobetzeko sortu dugun sare publiko-komunitarioa Hernani osora zabalduko dugu.

Extender el programa Auzozaintza a todos los barrios

Llevaremos a todo Hernani la red público-comunitaria creada para mejorar la calidad de vida de las personas mayores que están en soledad no deseada y en situación de vulnerabilidad.

50 **ZERBITZU SOZIALAK**



Adingabekoen ongizatean eragitea

Ikastetxeekin martxan jarri dugun prebentzio goiztiarreko programa adingabekoekin lan egiten duten herriko eragileekin ere martxan jarriko dugu.

Promover el bienestar entre menores de edad

Haremos partícipes también a los agentes locales del programa de prevención temprana que hemos puesto en marcha junto con los centros escolares.

51 **ZERBITZU SOZIALAK**



Zerbitzu Sozialak indartzea

Zerbitzu sozialetan dauzkagun errefortzuak estruktural bihurtu eta gizarte langileen plantilla handituko dugu. Horrela itxaron zerrendak murriztuko ditugu.

Fortalecer los servicios sociales

Convertiremos en estructurales los refuerzos de la plantilla, aumentando el número de trabajadoras sociales y logrando así reducir las listas de espera.

52 ZERBITZU SOZIALAK



Etxez-etxeko zerbitzua hobetzea

Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordenantza berria egingo dugu eta zaintza ereduaren etengabeko hobekuntzan jarraituko dugu.

Mejorar el Servicio de Ayuda a Domicilio

Reformaremos la ordenanza del Servicio de Ayuda a Domicilio y mantendremos nuestra apuesta por la mejora continua del modelo de cuidados.

53 ZERBITZU SOZIALAK



Alojamendu sozialak berritzea

Zerbitzu Sozialek kudeatzen dituzten etxebizitzak berritzeko inbertsio-plana eta egoera berriei erantzuteko ordenantza berria egingo ditugu.

Renovar los alojamientos sociales

Elaboraremos un plan de inversiones para reformar viviendas gestionadas por Servicios Sociales y aprobaremos una ordenanza que dé respuesta a las nuevas situaciones.

54 ZERBITZU SOZIALAK



Eragile sozialei diru-laguntzak handitzea

Eragile sozialei bideratutako diru-laguntzen partida handituko dugu, inor atzean ez geratzeko egingo diren proiektu gehiago lantzeko.

Incrementar las subvenciones a los agentes sociales

Ampliaremos la partida de subvenciones a agentes sociales para poder trabajar en más proyectos que busquen el objetivo compartido de no dejar a nadie atrás.

55 ADINEKOAK PERSONAS MAYORES



Bakarrik bizi direnentzat zerbitzu berriak sortzea

Udaltzaingoan bakarrik dauden adinekoen etxeetako giltzak gordetzeko zerbitzua jarriko dugu, larrialdi egoeretan sarrera errazagoa izan dadin.

Crear nuevos servicios para personas que viven solas

La Guardia Municipal ofrecerá un servicio para depositar llaves de domicilios de personas mayores que viven solas con el fin de facilitar el acceso en situaciones de emergencia.

56 ADINEKOAK PERSONAS MAYORES



Etxetik ateratzeko laguntza profesionala eskaintzea

Irisgarriak ez diren etxeetatik ateratzeko arazoak dituzten adineko pertsonei laguntza profesionala eskainiko zaie jaisteko eta igotzeko.

Ofrecer ayuda profesional para poder salir de casa

Se prestará asistencia profesional para que personas mayores con problemas de movilidad puedan entrar y salir de viviendas poco accesibles.

57 ADINEKOAK PERSONAS MAYORES




Adinekoentzako tailerrak auzo gehiagotara zabaltzea

Auzo zehatz batzuetan dauden adinekoentzako tailerrak auzo gehiagotara zabalduko ditugu, auzo elkarteekin batera.

Ampliar la oferta de talleres para mayores a más barrios

Llevaremos los talleres para personas mayores a más barrios, en colaboración con las asociaciones de vecinos y vecinas.

58 ADINEKOAK / PERSONAS MAYORES



Teknologia berriak eskura jartzea

Ikastaro laburrak antolatuko ditugu, gaur egun erabiltzen diren aplikazio zein tramiteak egiten ikasteko eta arrakala digitala gutxitzeko.

Facilitar el acceso a las nuevas tecnologías

Organizaremos cursos de corta duración con el fin de promover el uso de herramientas digitales a la hora de realizar trámites administrativos, reduciendo así la brecha digital.

59 ADINEKOAK / PERSONAS MAYORES



Adinekoentzako ekintzak udan ere eskaintzea

Udako ekintzak antolatuko ditugu, adinekoek haiei egokitutako ekintzak izan ditzaten urte osoan zehar.

Programar actividades para mayores también en verano

Organizaremos actividades también en los meses de verano para que las personas mayores puedan disfrutar durante todo el año de actividades adaptadas a ellas.

60 GAZTEAK / JÓVENES



Hernaniko gazteen beharren diagnosia egitea

16-30 urte bitarteko herriko gazteen beharren diagnosia egingo da gazteekin batera eta behar horiei aurre egiteko lan-proposamena egingo da.

Realizar un diagnóstico de las necesidades de la juventud

Se realizará un diagnóstico de las necesidades de los y las jóvenes hernaniarras de 16 a 30 años y se elaborará una propuesta de trabajo para poder satisfacerlas.

61 GAZTEAK / JÓVENES



Gazteentzako doako psikologia zerbitzua eskaintzea

16-30 urte bitarteko gazteei zuzendutako doako psikologia aholkularitza zerbitzua eskainiko du udalak. .

Ofrecer un servicio gratuito de psicología para jóvenes

El Ayuntamiento ofrecerá un servicio de asesoramiento psicológico gratuito dirigido a jóvenes de entre 16 y 30 años.

62 HAUR ETA NERABEAK / INFANCIA Y ADOLESCENCIA



Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babestea

Indarkeria mota desberdinen aurrean haur eta nerabeak babesteko herri mailako lanketa egingo da eragileekin.

Protección de la infancia y adolescencia ante la violencia

Se trabajará a nivel local junto a las asociaciones con el fin de proteger a la infancia y la adolescencia ante las diferentes formas de violencia.

63 HAUR ETA NERABEAK / INFANCIA Y ADOLESCENCIA




Nerabeen arrisku joerei aurre egiteko programa atontzea

Hernaniko Gaztelekuak tailer eta dinamikak landuko ditu nerabeak arriskuen aurrean gaitzeko, eta jarrera kritikoan trebatzeko.

Prevención de conductas de riesgo entre adolescentes

El Gazteleku de Hernani trabajará en talleres y dinámicas para capacitar a los y las adolescentes ante las conductas de riesgo y para que tengan una actitud crítica.

64 **HAUR ETA NERABEAK** INFANCIA Y ADOLESCENCIA



Nerabeen jarduera fisikoa eta kultura zaletasuna sustatzea

Kultur eta kirol zaletasunak sustatzeko programak eskainiko dira, adin honetan dituzten motibazioak kontuan hartuta.

Fomentar la actividad física y la cultura entre adolescentes

Se ofrecerán programas para fomentar las aficiones culturales y deportivas teniendo en cuenta las motivaciones existentes a estas edades.

65 **HAUR ETA NERABEAK** INFANCIA Y ADOLESCENCIA



Haur eta familientzako espazio itxi bat eskaintzea

0-9 urte bitarteko haurrei zein haien familiei eguraldi txarra egiten duenean aisialdiko denbora elkarrekin igarotzeko gune goxoa eskainiko zaie.

Ofrecer un espacio cerrado a las familias

Habilitaremos un espacio para que los niños y niñas de 0 a 9 años y sus familias puedan compartir el tiempo de ocio en días de mal tiempo.

66 **HAUR ETA NERABEAK** INFANCIA Y ADOLESCENCIA



Hernaniko haurren kontseilua sortzea

Haurren kultura aitortuz eta hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena emango dien kontseilua sortuko dugu.

Creación del Consejo de la Infancia de Hernani

Partiendo del reconocimiento de la cultura infantil, crearemos un consejo que permita a las niñas y a los niños participar y decidir.

67 **TOKIKO GARAPENA** DESARROLLO LOCAL



Hernaniko industrialdeen garapena bultzatzea

Herriko industrialde berriak eraikitzeko eta daudenak hobetzeko elkarlanean arituko gara Eusko Jaurlaritzarekin.

Impulsar el desarrollo de los polígonos industriales de Hernani

Colaboraremos con el Gobierno Vasco en la construcción de nuevos polígonos industriales en el municipio, así como en la mejora de los ya existentes.

68 **TOKIKO GARAPENA** DESARROLLO LOCAL



Hernaniko Enpresen Foroa sortzea

Enpresek trantsizio energetikoan, digitalizazioan eta zaintzan dituzten erronkei aurre egiten laguntzeko tresna partekatua izango da sortutako foroa.

Crear el Foro de Empresas de Hernani

Este foro aportará un espacio compartido para ayudar a las empresas a afrontar los retos de la transición energética, la digitalización y los cuidados.

69 **TOKIKO GARAPENA** DESARROLLO LOCAL



Enpresen trantsizio ekosoziala sustatzea

Behar komunak antzeman eta etorkizuneko erronken aurrean neurri bateratuak hartuko dira: energia berriztagarrien inguruan, teknologia berrien inguruan...

Fomentar la transición ecosocial de las empresas

Ayudaremos a las empresas de Hernani a detectar necesidades comunes y a tomar medidas conjuntas ante los retos de futuro: energías renovables, nuevas tecnologías...

70 TOKIKO GARAPENA
DESARROLLO LOCAL



Ekintzailetza sozial eta kooperatiboa bultzatzea

Proiektuen sorrera, garapen edo egonkortzean urrats praktikoak ematen laguntzeko zerbitzua indartuko da.

Impulsar el emprendimiento social y cooperativo

Reforzaremos el servicio de apoyo práctico a la creación, desarrollo y consolidación de nuevo proyectos.

71 TOKIKO GARAPENA
DESARROLLO LOCAL



Klausula sozial eta anbientalak kontratazio publikoetan ezartzea

Zerbitzuen bermunizipalizazioa aztertzen den bitartean, enpresekin egin beharreko kontratuetan klausula horiek ezarriko dira, lan-baldintzetan arreta berezia jarrita.

Aplicar cláusulas sociales y ambientales en la contratación pública

Mientras se estudia la remunicipalización de servicios, implantaremos cláusulas sociales en contratos con empresas privadas, haciendo hincapié en las condiciones laborales.

72 TOKIKO GARAPENA
DESARROLLO LOCAL



Langabetuentzako orientazio zerbitzua eskaintzea

Gaur egun egiten diren elkarrizketetan antzemandako beharretatik abiatuta, langabetuei laguntza espezifikoa emango zaie: tailerrak, saio bereziak...

Ofrecer un servicio de orientación para personas desempleadas

A partir de las necesidades detectadas en las entrevistas que se realizan, se dará apoyo específico a las personas desempleadas: talleres, sesiones especiales...

73 TOKIKO GARAPENA
DESARROLLO LOCAL



Nekazal lur berriak ekoizleen esku uzteko lan egitea

Udalak nekazaritzarako lurzoruak eskuratzeko ahalegina egingo du, ekoizpena handitzeko eta etxalde berriak ezartzeko helburuarekin.

Trabajar para ofrecer terrenos agrícolas a productores/as locales

El Ayuntamiento hará las gestiones necesarias para poder adquirir nuevas parcelas agrícolas con el fin de aumentar la producción e implantar nuevas explotaciones.

74 TOKIKO GARAPENA
DESARROLLO LOCAL

BETERRI BURUNTZA

Mankomunitatearen lehendakaritza

2023-2027 bitartean Hernani izango da Beterri-Buruntza mankomunitateko lehendakaria; eta udalerrien arteko sinergia berriak sortzea izango du helburu.

Presidencia de la mancomunidad comarcal

Entre 2023 y 2027 Hernani presidirá la Mancomunidad Beterri-Buruntza y trabajaremos para generar nuevas sinergias entre municipios.

75 TOKIKO MERKATARITZA
COMERCIO LOCAL



Merkataritza leihatila sortzea

Gudarien Plazako lokal berrian kokatua egongo da eta negozio berria jarri nahi dutenentzat zein profesionalentzat zuzendua egongo da.

Creación de una ventanilla para comerciantes

Estará ubicada en el nuevo local de la Plaza de los Gudaris y estará dirigida tanto a quienes quieran abrir un nuevo negocio como a los y las profesionales del sector.

76 TOKIKO MERKATARITZA COMERCIO LOCAL



Merkataritzako lokal hutsak aktibatzea

Hiri ekonomia dinamizatzeko interesgarri izan daitezkeen proiektuak diruz lagunduko dira, urtean gutxienez 3 proiektu berri abian jartzeko.

Activar locales comerciales vacíos

Se subvencionarán proyectos de interés para dinamizar la economía local, con el fin de ayudar a poner en marcha al menos 3 nuevos establecimientos al año.

77 TOKIKO MERKATARITZA COMERCIO LOCAL



Merkataritza negozioen erreleboa sustatzea

Erretiroa dela eta ixteko arriskuan dauden negozioen jarraipena sustatzeko programa diseinatu eta martxan jarriko da.

Fomentar el relevo generacional en comercios

Diseñaremos y pondremos en marcha un programa de apoyo a la continuidad de los negocios en riesgo de cierre por jubilación.

78 TOKIKO MERKATARITZA COMERCIO LOCAL



Lokal komertzialen irisgarritasuna hobetzea

Irisgarritasun baldintzak hobetzeko ekintza-plana egingo dugu, aniztasun funtzionala duten pertsonen alde aritzen diren eragileekin elkarlanean.

Mejorar la accesibilidad de los locales comerciales

Elaboraremos un plan de acción para mejorar las condiciones de accesibilidad en colaboración con asociaciones por los derechos de las personas con diversidad funcional.

79 TOKIKO MERKATARITZA COMERCIO LOCAL



Ekhilur tokiko moneta indartzea

Hernaniko hiri ekonomia eta erosketa ohiturak eraldatzeko martxan dagoen eta mila herritarrek baino gehiagok erabiltzen duten Ekhilur sistema sendotzea.

Fortalecimiento de la moneda local Ekhilur

Consolidaremos el sistema Ekhilur, utilizado ya por más de mil hernaniarras, que busca transformar los hábitos de compra y mejorar la economía local de Hernani.

80 TOKIKO MERKATARITZA COMERCIO LOCAL



Merkataritza plan berria egitea

Dendariekin batera egingo den merkataritza-plan berriak hiru zutabe izango ditu: "Hernanin" erakusleiho digitala, banaketa zerbitzua eta ordaintzeko Ekhilur sistema.

Elaborar un nuevo Plan de impulso al comercio

El nuevo plan se elaborará juanto con los y las comerciantes y se apoyará en tres pilares: el escaparate digital "Hernanin", el servicio de distribución y el sistema de pago Ekhilur.

81 TURISMOA



Turismo informazio puntu berria jartzea

Gudarien plazan lokal berria jarriko da, herritar zein sektore pribatuarentzat erreferentziazko-gune bihurtzeko.

Nuevo punto de información turística

En la Plaza de los Gudaris se abrirá un nueva oficina que se convertirá en un centro de referencia para la ciudadanía y agentes del sector turístico.

82 TURISMOA



Pisu turistikoak arautzeko ordenantza berria egitea

Pisu turistikoen ugaritzearen eta etxebizitzaren prezioaren igoeraren arteko lotura ikusita, elkarreragina murrizteko ordenantza berria egingo dugu.

Elaborar una nueva ordenanza de pisos turísticos

Vista la relación entre el incremento de pisos turísticos y el auge del precio de la vivienda, se elaborará una nueva ordenanza para reducir los efectos negativos.

83 TURISMOA



Hiri eta landa-eremuko seinaleztapena berritzea

Auzoak, interes turistikoko guneak, sagardotegiak, baserriak eta udal zerbitzu eta ekipamenduak identifikatzeko seinaleen diseinua berrituko dugu.

Renovar la señalización urbana y rural

Renovaremos el diseño de las señales que identifican barrios, áreas de interés turístico, sidrerías, caseríos y servicios y equipamientos municipales.

84 TURISMOA



Hernaniko eredu turistikoa definitzea

Egungo eta etorkizuneko fluxu turistikoak aztertuko ditugu, turismo eredu jasangarri baten alde.

Definir el modelo turístico de Hernani

Analizaremos los flujos turísticos actuales y futuros y diseñaremos un nuevo modelo de turismo sostenible.

85 TURISMOA



Turismoaren Foroa sortuko da

Turismo arloko enpresak, eragileak, udala zein bestelako entitate pribatuen arteko harremanak eta sinergiak sustatzeko tresna izango da foroa.

Se creará un Foro de turismo

Este espacio fomentará las relaciones y sinergias entre empresas, agentes turísticos, Ayuntamiento y otras entidades privadas.

86 TURISMOA



Autokarabanen gunearen egokitzapena

Ibaiondo poligonoan dagoen autokarabanentzako espazioan hobekuntzak egingo dira.

Adecuar el área para autocaravanas

Mejoraremos este área destinada a autocaravanas que está ubicada en el polígono Ibaiondo.

87 KIROLA DEPORTE



Latsunbeko frontoia estaltzea

Lan honekin kirolerako eta aisialdirako gune estali bat irabaziko da auzoan.

Cubrir el frontón de Latsunbe

Gracias a esta intervención se ganará un espacio deportivo y de ocio cubierto en el barrio.

88 KIROLA DEPORTE



Kiroldegian rokodromo berria egitea

Kiroldegiko pilotalekuaren alboan eskalada eta haren modalitateak praktikatu ahal izateko rokodromoa egingo da.

Nuevo rocódromo en el polideportivo

Se construirá un rocódromo junto al frontón del polideportivo municipal para practicar la escalada en todas sus modalidades.

89 KIROLA DEPORTE



Zubipeko eta Landareko kirol instalazioak eraberritzea

Futbol eta errugbi klubekin elkarlanean, kirol instalakuntzak hobetzeko proiektu berria egingo dugu.

Reformar las instalaciones deportivas de Zubipe y Landare

En colaboración con los clubes de fútbol y rugby, vamos a realizar un nuevo proyecto para mejorar las instalaciones deportivas.

90 KIROLA DEPORTE



Tilosetako frontoia konpontzea

Hainbat jardueretarako baliatzen den frontoi honen ezker pareta eta frontisa konpondu eta hobetuko ditugu.

Reparar el frontón de los Tilos

Reformaremos la pared izquierda y el frontis de este frontón, que en la actualidad se utiliza para diversas actividades.

91 KIROLA DEPORTE



Bizikletak garbitzeko gune berriak atontzea

Bizikletak garbitzeko gune publikoak eta doakoak jartzen jarraituko du Hernaniko Udalak.

Acondicionar nuevos puntos de limpieza de bicicletas

El Ayuntamiento de Hernani seguirá instalando nuevos puntos públicos y gratuitos de limpieza de bicicletas.

92 KIROLA DEPORTE



Auzoetako kirol ekipamenduak berritzea

Auzoetako kirol-ekipamenduak konpondu edo aldatu egingo dira. Adinekoentzako makina bio-osasungarriak erabiltzeko ikastaroak emango dira.

Renovar equipamientos deportivos en los barrios

Reformaremos o sustituiremos equipamientos deportivos en los barrios. Se impartirán cursos para que las personas mayores aprendan a utilizar elementos bio-saludables.

93 KIROLA / HEZKUNTZA DEPORTE / EDUCACIÓN



Gazteek ariketa fisikoarekin jarraitzeko ekintzak antolatzea

14-18 urteko gazteek beren kirol-ohiturak ez baztertzeko ekintzak antolatuko ditugu, esaterako, kirol berriak eskainiko dira (frontball, pickleball...)

Organizar actividades para que la juventud siga haciendo deporte

Organizaremos actividades para que los jóvenes de 14 a 18 años no abandonen sus hábitos deportivos. Por ejemplo, se progamarán nuevos deportes (frontball, pickleball...)

94 KIROLA DEPORTE



Kirol-orientazioko zerbitzua martxan jartzea

Zerbitzu hau jarduera fisikoan hasi berriak diren herritarrentzat izango da, eta orientatzaile baten laguntza jasoko da ohitura osasungarriak sustatzeko.

Poner en marcha un servicio de orientación deportiva

Este servicio estará dirigido a las personas que comienzan a hacer deporte y contará con la ayuda de una persona que les orientará en el fomento de hábitos saludables.

95 KIROLA DEPORTE



Jarduera fisikoan emakumeen beharrak aztertzea

Azterketa bat egingo da ezagutzeko emakumeen kirolarekiko motibazioak, esperientziak, ohiturak, kirola egiteko oztopoak....

Analizar las necesidades de las mujeres en el ámbito deportivo

Se realizará un estudio para conocer las motivaciones, experiencias, hábitos y obstáculos que encuentran las mujeres en relación con la práctica deportiva.

96 KIROLA DEPORTE



`Emakumeak Kirolari´ ekimena sortzea

Ekimen honekin herriko emakumeek kirolean duten presentzia aldarrikatzeko ekintzak egingo dira emakumeekin eta klubekin elkarlanean.

Crear la iniciativa `Emakumeak Kirolari´

Se realizarán acciones en colaboración con mujeres y clubes deportivos para reivindicar la participación de las mujeres hernaniarras en diferentes disciplinas.

97 KIROLA DEPORTE



Kanpoko igerilekuetako eremua urte osoan erabilgarri

Urte osoan herritarrentzako espazio erabilgarria lortzeko urratsak egingo ditugu.

El espacio de las piscinas exteriores disponible todo el año

Vamos a dar pasos para posibilitar que la ciudadanía pueda disfrutar de la zona verde de las piscinas durante todos los meses del año.

98 KIROLA DEPORTE



Kalistenia parke bat jartzea.

Leku itxietatik kanpo gimnasioko ariketak egiteko instalazioa jarriko dugu, kalistenia deiturikoa.

Instalación de un parque de calistenia

Se instalarán elementos para la realización de ejercicios de gimnasio al aire libre y poder practicar una nueva modalidad deportiva denominada calistenia.

99 EUSKARA



Euskararen kontseilua sortzea

Kontseilua herriko eragileek osatuko dute eta Udalak Kontseilutik ateratzen diren eskaerak bere jardunean txertatzeko konpromisoa hartuko du.

Crear el Consejo del Euskera

El Ayuntamiento se compromete a incorporar a su actividad las peticiones que le haga llegar este nuevo Consejo, que estará compuesto por agentes locales.

100 EUSKARA



Hernani, UEMAko kide berria

Hernanik udalerri euskaldunekin saretzea erabaki du, hizkuntza politika aurrerakoiei beste bulkada bat emateko.

Hernani, nuevo miembro de UEMA

Hernani ha decidido coordinarse con otros municipios euskaldunes para dar un nuevo impulso a las políticas lingüísticas progresistas.

101 EUSKARA



Euskararen babesguneak sortzen laguntzea

Euskaraz bizitzeko espazioak babestu eta garatzea sustatuko du Udalak, herriko eragileekin elkarlanean.

Favorecer la creación de espacios para vivir en euskera

El Ayuntamiento promoverá espacios para vivir en euskera, en colaboración con los agentes locales.

102 EUSKARA



Euskara ikasteko baliabideak eskaintzea

Hernaniar guztiei euskara ikasteko duten eskubidea bermatuko zaie, etorri berriei arreta berezia eskainita.

Ofrecer recursos para aprender euskera

Se garantizará el derecho de todos y todas las hernaniarras a aprender euskera, con especial atención a las personas recién llegadas.

103 EUSKARA



Euskararen erabilera sustatzea

Herritar guztiei euskarazko gaitasuna hobetzeko baliabideak eskainiko zaizkie, batez ere aisialdian, arreta berezia eskainita haur eta gazteei.

Fomentar el uso del euskera

Se facilitarán recursos para mejorar la comunicación en euskera entre toda la ciudadanía, especialmente en el ámbito del ocio, con especial atención a la infancia y la juventud.

104 HERRI LANAK MANTENIMIENTO URBANO



Erratz-makina berriak erostea

Udalak bi kale-garbigailu makina erosiko ditu, horietako bat elektrikoa.

Adquirir nuevas máquinas barredoras

El Ayuntamiento comprará dos nuevas barredoras, una de ellas eléctrica.

105 HERRI LANAK MANTENIMIENTO URBANO



Lorezaintza zerbitzua hobetzea

Lorezaintzako kontratua berrituko da zerbitzua hobetzeko eta lorezaintza jasangarriagoa eta hobea lortzeko.

Mejorar el servicio de jardinería

Renovaremos el contrato de jardinería para mejorar el servicio y conseguir una jardinería más sostenible y mejor.

106 HERRI LANAK MANTENIMIENTO URBANO



Goiz Eguzki eraikinean hobetze-lanak egitea

Hernaniko Goiz Eguzki erretiratuen taldearen egoitza berritzeko lanak egingo dira eta teilatua, terraza eta galdara berrituko dira.

Reformas en el edificio de Goiz-Eguzki

Reformaremos el tejado, la terraza y la caldera de la sede del Hogar del Jubilado Goiz-Eguzki.

107 HERRI LANAK MANTENIMIENTO URBANO



Udal asfaltatze plana egitea

Urtero partida bat gordeko da udal aurrekontuetan udal eskumeneko bideen asfaltoa berritzeko.

Elaborar el plan municipal de asfaltado

Se reservará una partida anual en los presupuestos municipales para la renovación del asfalto de las vías de competencia municipal.

108 AUZOAK BARRIOS



Portu-Elizatxo urbanizazioaren bigarren fasea egitea

Lehen fasearekin oinezkoentzako bide atseginagoak eta seguruagoak sortu ziren, eta orain bigarren faseari ekingo zaio.

Ejecutar la segunda fase de la urbanización de Portu-Elizatxo

En la primera fase se realizaron diversas intervenciones que han hecho que la vía sea más amable y segura, y ahora se abordará la segunda fase del proyecto.

109 AUZOAK BARRIOS



Karabel auzoko Oleta plazako haur parkea estaltzea

Oleta plazan dagoen haur-parkean estalki bat jarriko da, euria egiten duen egunetan ere erabili ahal izateko.

Cubrir el parque infantil de la plaza Oleta en Karabel

Se instalará una cubierta en el parque infantil situado en la plaza Oleta, para que pueda ser utilizado también los días de lluvia.

110 AUZOAK BARRIOS



Martindegiko ekaitza-tanga berria eraikitzea

Ekaitzen tankeak funtsezkoak dira uholdeak saihesteko. Astigarragako Udalarekin batera egin beharreko obra da.

Construir un nuevo tanque de tormentas en Martindegi

Los tanques de tormentas son fundamentales para evitar inundaciones. Se trata de una obra a realizar junto con el Ayuntamiento de Astigarraga.

111 AUZOAK BARRIOS



Elizatxo 60-66 zenbakien urbanizazioa berritzea

Hodiak berrituko dira (elektrizitatea, ur zikinak, euri urak...) eta ingurua urbanizatuko da, lurzorua maila berean utzita.

Renovar la urbanización de Elizatxo 60-66

Acometeremos la renovación de tuberías (aguas residuales, pluviales...) y la urbanización del entorno para dejarlo todo al mismo nivel.

112 AUZOAK BARRIOS



Osinagako mugikortasuna hobetzea

Auzotarren eta bisitarien oinezko eta kotxe bidezko mugikortasuna hobetzeko, zubian egin beharreko lanak egingo dira.

Mejorar la movilidad en Osinaga

Para mejorar la movilidad peatonal y en coche de los vecinos y vecinas, así como de visitantes, se realizarán las obras necesarias en el puente.

113 AUZOAK BARRIOS



Udaletxe atzeko oinezko eremua berritzea

Elkano, Lizeaga eta Atzieta kaleen elkargunean oinezkoentzako eta autoentzako eremu mistoa berrituko da.

Adecuar la zona peatonal en la trasera del ayuntamiento

Se renovará la zona mixta para peatones y vehículos en la confluencia de las calles Elkano, Lizeaga y Atzieta.

114 AUZOAK BARRIOS



Saneamendu proiektuak auzoz-auzo gauzatzea

Auzoz-auzo egiten ari garen saneamendu proiektuak gauzatuko ditugu, besteak beste, Osiñagan eta Epelen.

Ejecución proyectos de saneamiento en los barrios

Pondremos en marcha la ejecución de los proyectos de saneamiento planificados en barrios como Osiñaga y Epele.

115 AUZOAK BARRIOS



Galarreta auzoaren birgaitzea

Galarreta auzoaren urbanizazioa berrituko da, bertako bizi kalitatea hobetzeko.

Rehabilitar el barrio de Galarreta

Haremos obras de urbanización en el barrio de Galarreta para mejorar su calidad de vida.

116 AUZOAK BARRIOS



Ereñotzuko Zentrala birgaitzea

Auzo Udaleko Ondarea eta Identitatea proiektuaren baitan, Ereñotzuko zentrala birgaitzeko proiektuaren diseinua egingo dugu elkarlanean.

Rehabilitar la central de Ereñotzu

El Ayuntamiento trabajará junto con el Auzo Udala de Ereñotzu en el diseño de la rehabilitación de la central, en el marco del proyecto “Ondarea eta Identitatea”.

117 AUZOAK BARRIOS



Atarrabiyon parke inklusiboa sortzea

Adin desberdinetako herritarrentzako elementuak jarriko dira belaunaldien arteko harremana errazteko.

Crear un parque inclusivo en Atarrabiyo

Se instalarán nuevos elementos que faciliten las relaciones intergeneracionales entre hernaniarras de diferentes edades.

118 MEMORIA HISTORIKOA eta ONDAREA
MEMORIA HISTÓRICA y PATRIMONIO



Lehen Frankismoari buruzko ikerlana aurkeztea

Aranzadi Zientzia Elkarteak Hernanik 1939-1960 bitartean bizi izan zuen garai ilunari buruz Udalak eskatutako ikerketa amaituko du.

Presentar el estudio sobre el primer Franquismo

La Sociedad de Ciencias Aranzadi concluirá la investigación encargada por el Ayuntamiento sobre esta etapa oscura que vivió Hernani entre 1939-1960.

119 MEMORIA HISTORIKOA eta ONDAREA
MEMORIA HISTÓRICA y PATRIMONIO



Artxiboaren instalazio berriak martxan jartzea

Laubidieta parean egongo da eta herritarrek kontsultak egiteko gela erosoagoak eta baliabide gehiago izango dituzte.

Poner en marcha las nuevas instalaciones del Archivo municipal

Las nuevas instalaciones se ubicarán en frente de Laubidieta, y en ellas la ciudadanía dispondrá de salas de consulta más cómodas y con más recursos.

120 MEMORIA HISTORIKOA eta ONDAREA
MEMORIA HISTÓRICA y PATRIMONIO



Artxiboa denon eskura jartzea

Artxibo elektronikoa martxan jarriko dugu eta dokumentu zaharrak digitalizatuko dira herritarrei sarbidea errazteko.

Poner el Archivo a disposición de todos y todas

Habilitaremos el Archivo Electrónico y digitalizaremos documentos antiguos, todo ello para facilitar el acceso de la ciudadanía.

121 MEMORIA HISTORIKOA eta ONDAREA
MEMORIA HISTÓRICA y PATRIMONIO



Latseko fabrika zaharberritzea

Euste-lanak egin eta bertan egin ahal daitekeen inguruko lanketa egingo dugu Ereñotzuko auzo udalarekin batera.

Restaurar la fábrica de productos químicos de Latse

Realizaremos trabajos de contención en la antigua fábrica y estudiaremos posibles nuevas intervenciones junto con el Auzo Udala de Ereñotzu.

122 MEMORIA HISTORIKOA eta ONDAREA
MEMORIA HISTÓRICA y PATRIMONIO



Santa Barbarako gotorlekuaren eta Fagollagako zubiaren atontzea

Santa Barbarako gotorlekua eta baseliza atonduko dira, baita Fagollagako zubia ere, bizilagunek eta bisitariek egoera txukunean bisita ditzaten.

Acondicionar el fuerte de Santa Bárbara y el puente de Fagollaga

Acondicionaremos el fuerte y la ermita de Santa Bárbara, así como del puente de Fagollaga, para uso y disfrute de hernaniarras y visitantes.

123 MEMORIA HISTORIKOA eta ONDAREA
MEMORIA HISTÓRICA y PATRIMONIO



Karobietako burdinolak berreskuratzea

Proiektua landuko dugu ingurune osoa leheneratzeko.

Recuperar las ferrerías de Karobieta

Trabajaremos en un proyecto para la regeneración de todo el entorno.

124 MEMORIA HISTORIKOA eta ONDAREA / MEMORIA HISTÓRICA y PATRIMONIO



Herriko armarriaren aztertzea

Nabarralde eta Eusko Ikaskuntzarekin batera, Udalak gure armarriaren eta banderaren jatorria eta esanahia aztertuko ditu.

Realizar un estudio sobre el escudo de Hernani

Junto con Nabarralde y Eusko Ikaskuntza, el Ayuntamiento analizará el origen y significado de nuestro escudo y nuestra bandera.

125 GOBERNANTZA EREDUA / MODELO DE GOBERNANZA



Txotx garaiko eredua aldatzea

Txotx garaiko eredua aldatze bidean aurrerapausoak emango dira herritik bertatik eta Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanerako proposamena abiatuko dugu.

Cambiar el modelo de la temporada del txotx

Daremos pasos para cambiar el modelo actual de la temporada de sidrerías y abriremos vías para la colaboración con la Diputación Foral y el Gobierno Vasco.

126 GOBERNANTZA EREDUA / MODELO DE GOBERNANZA



Udaltzainen udal hautaketa prozesua egitea

Hernanik Lan Eskaintza Publikoa burutuko du udaltzain eredu propioa garatzeko eta hurbileko zerbitzua bermatzeko.

Realizar un proceso de selección de agentes municipales

Llevaremos a cabo la Oferta Pública de Empleo con la vista puesta en el desarrollo de un modelo propio de Guardia Municipal que garantice un servicio cercano.

127 GOBERNANTZA EREDUA / MODELO DE GOBERNANZA




Udal bulego digitala ezartzea

Udalarekin harremanak bide telematikoen bidez egiteko ikastaroak egingo dira eta izapide gehiago online eta ordutegirik gabe egin ahal izango dira.

Mejorar la oficina digital municipal

Se realizarán cursos para aprender a relacionarse telemáticamente con el Ayuntamiento, y se podrán realizar más trámites online a cualquier hora del día.

128 GOBERNANTZA EREDUA / MODELO DE GOBERNANZA



Udalaren komunikazio bideak hobetzea

Udalak euskarri komunikatibo berriak sortuko ditu, herritarrek udal informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatze aldera.

Mejorar los canales de comunicación municipales

Crearemos nuevos soportes comunicativos para garantizar el derecho de los y las hernaniarras a estar informadas de la actividad de su Ayuntamiento.

129 GOBERNANTZA EREDUA / MODELO DE GOBERNANZA



Udal webgunearen berritzea

Erabiltzeko errazagoa izango da, Tokiko Garapena, Kirola eta Gazteria atalak berrituko dira eta herriko sortzaileentzako gune berri bat sortuko da.

Renovar la web municipal

Haremos la web más accesible, renovando los apartados dedicados a la Economía Local, el Deporte y la Juventud y crearemos un nuevo espacio para artistas locales.

130 GOBERNANTZA EREDUA MODELO DE GOBERNANZA



Udaltzaingoaren instalazioen zaharberritzea

Udaltzaingoaren instalazioak berrituko ditugu udaltzainek eskaintzen duten hurbileko zerbitzua hobetzeko.

Reformar las instalaciones de la Guardia Municipal

Renovaremos las instalaciones de la Guardia Municipal para mejorar el servicio de proximidad que prestan los y las agentes.

131 GOBERNANTZA EREDUA MODELO DE GOBERNANZA



Udal langileen egonkortzea handitzea

Langile batzordearekin batera landutako egonkortze prozesua amaituko dugu, Lan Eskaintza Publikoa berriak aurkeztuta.

Proceso de estabilización de la plantilla municipal

Presentaremos nuevas Ofertas Públicas de Empleo como colofón al proceso de estabilización que venimos trabajando en colaboración con el Comité de Empresa.

132 GOBERNANTZA EREDUA MODELO DE GOBERNANZA



Auzo-birak egitea

Auzoetako bilera erronda errepikatuko dugu urtero, auzotarren beharrak entzun eta lehentasunak elkarrekin adosteko.

Reuniones en los barrios

Se organizarán reuniones anuales en todos los barrios para escuchar las necesidades de los vecinos y vecinas y consensuar las prioridades.

133 GOBERNANTZA EREDUA MODELO DE GOBERNANZA



Elkarteentzako lokalen kudeaketa egitea

Hernani herri bizia da hainbat arlotan lan egiten duten elkarte askori esker. Udalak eragileek lokalen inguruan dituzten behar berriei erantzuteko lan egingo du.

Gestión de locales para asociaciones

Trabajaremos para dar respuesta a las nuevas necesidades de las asociaciones que trabajan en diferentes ámbitos y que dan vida a Hernani.

134 GOBERNANTZA EREDUA MODELO DE GOBERNANZA



Politika fiskal aurrerakoia

Ekitatean, progresibitatean eta birbanaketan sakontzen jarraituko duen udal zerga-politikarako landuko dugu.

Política fiscal progresiva

Seguiremos trabajando en una política fiscal que ahonde en la equidad, la progresividad y la redistribución.

135 GOBERNANTZA EREDUA MODELO DE GOBERNANZA



Bitartekaritza zerbitzua ezartzea

Proba pilotu bat egingo dugu herritarren artean sortzen diren gatazkak konpontzeko bitartekaritza zerbitzua ezartzeko bidean.

Implantar un servicio de mediación

Vamos a realizar una prueba piloto de un nuevo servicio de mediación para la resolución de conflictos entre la ciudadanía.

Herrigintza eredua: herritarrak erdigunean

Hernani herri anitza da eta horrek aberasten gaitu. Herritar guztientzat gobernatzen dugu, inor kanpoan utzi gabe.

Denon bizitzan eragina duten erabakietan parte-hartzea sustatzeko politikak egin ditugu gaur arte. Gaurtik aurrera ere, bide berdinetik jarraitzeko apustua egingo dugu, zailtasun gehien dutenengana iristea gure helburuetako bat baita.

Izan ere, Hernani parekidetasunean eta eredu inklusiboan oinarritutako herria izatea nahi badugu, errealitate ezberdinei ahotsa ematea eta tokia egitea dagokigu. Haur, nerabe eta gazteentzako herria nahi dugu; adinekoekin, emakumeekin, pertsona migratuekin, LGTB+ pertsonekin eta aniztasun funtzionala dutenekin osatutako herria nahi dugu. Hau da, aniztasun horri erantzungo dion herria izatea nahi dugu gurea. Soilik horrela izango baita denontzako herria.

Herri hezitzaile eta hezigarria nahi dugu, non udal politikak herriko eragile, talde zein elkarterekin batera egiten diren.

Bide horretan, Hernani aitzindaria izan da euskara, kultura eta berdintasuna udal politika guztien erdigunean jartzen. Eta bide beretik jarraituko dugu, denontzako Hernani nahi dugulako, inor bazterrean utzi gabe.

Las personas en el centro

Hernani es plural y es esa pluralidad la que nos enriquece como pueblo. Por eso, este Gobierno municipal gobierna para toda la ciudadanía, sin excluir a nadie.

Hemos apostado firmemente por fomentar la participación ciudadana en las decisiones que afectan a la vida de todos y todas. Y, de cara a los próximos meses y años, vamos a seguir por el mismo camino, porque llegar hasta las personas que más dificultades tienen es uno de nuestros principales objetivos.

Porque si queremos que Hernani camine hacia la paridad y hacia un modelo de gobernanza inclusivo, es imprescindible dar voz y dar espacio a las diferentes realidades que conviven aquí. Queremos un pueblo para niños y niñas, adolescentes y jóvenes, un pueblo en el que conviven personas mayores, mujeres, personas migradas, personas LGTB+ y con diversidad funcional. Es decir, queremos que Hernani responda a toda esa pluralidad. Sólo así conseguiremos realmente un pueblo para todos y todas.

Queremos un pueblo educador y educativo, en el que las políticas municipales se lleven a cabo conjuntamente con las asociaciones, entidades y agentes sociales del municipio.

Hernani ha sido pionera en poner al euskera, la cultura y la igualdad en el centro de todas las políticas municipales. Y seguiremos haciéndolo, porque queremos una Hernani para todos y todas, sin dejar a nadie atrás.

Lurraldearen erresilientzia ekonomikoa eta ekologikoa

Hernanin berrikuntza ekonomiko eta soziala bilatzen dugu, betiere herritarren partaidetzarekin: zerbitzu berriak, enplegu berriak eta gobernatzeko modu berriak.

Bide berriak irekitzen ditugu trantsizio ekologikoa aktiboki bultzatzeko: bertako produktuen ekoizpena eta banaketa, birziklapenaren sektorean aitzindari izanik, energia berriztagarriak sustatzeko proiektu parte-hartzaileak eta herritarrak bultzatuz, energia-pobreziaren aurka borrokatuz, urrats sendoak egiten udal eraikinen energia-autosufizientzia lortzeko, eta gauza bera mugikortasun iraunkorrari dagokionez.

Udala, enpresak, herritarrak, merkatariak eta eragile sozial eta kulturalak elkarlanean jartzen ditugu guztion artean tokiko garapen ekonomiko jasangarria lortzeko.

Herritarrak hirigintzaren erdigunean jarriko dituzten eredu berritzaileak ere bilatzen ditugu, munduko eredu aurrerakoienak gurera ekarriz. Etorkizunari begira, guztion artean landuko dugun erronka handia izango da Ezkiaga-Izpizua eremuaren hirigintza garapena, kultur ekipamendu berria errealitate bihurtuz.

Azken finean, Udal zerbitzuetan pauso bat aurrerago joaten jarraituko dugu, etengabe, herritarrak eta Hernaniren interes orokorra beste interes batzuen gainetik jarriz.

Hacia la resiliencia económica y ecológica

En Hernani buscamos la innovación económica y social. Innovamos en servicios, en empleos y en nuevas formas de gobierno, siempre con la participación ciudadana como eje.

Abrimos nuevas vías para impulsar activamente la transición ecológica, fomentando la producción y distribución de productos locales, siendo pioneras en el sector del reciclaje, apoyando proyectos participativos en el ámbito de las energías renovables, luchando contra la pobreza energética, dando pasos firmes hacia la autosuficiencia energética de los edificios municipales, y también caminamos en la dirección de conseguir una movilidad más sostenible.

Ayuntamiento, empresas, ciudadanía, comerciantes y agentes sociales y culturales, todos juntos colaborando para lograr un desarrollo económico local sostenible.

También buscamos modelos innovadores que pongan a la ciudadanía en el centro de las intervenciones urbanísticas, trayendo a Hernani los modelos más progresistas del mundo. De cara al futuro, el desarrollo urbano de Tilos e Izpizua será un gran reto que trabajaremos entre todos y todas, haciendo realidad el nuevo equipamiento cultural.

En definitiva, seguiremos avanzando un paso por delante en la mejora de los servicios municipales, poniendo siempre a la ciudadanía y el interés general de Hernani por encima de otros intereses.



Hurrengo urtetako udal jarduera gidatuko duen Gobernu plana aurkezteko ekitaldia

Hernaniko Gobernu taldeak, alkatea buru zuela, "hurrengo urteetarako iparrorratza" aurkeztu zuen joan den ostegunean. Ekitaldia udaletxeko areto berrian egin zen, eta bertan izan ziren hernaniar ugari eta gure herria aberasten duten gizarte eta kultur eragileen ordezkariak.

Acto de presentación del Plan de gobierno que guiará la acción municipal hasta 2027

El equipo de Gobierno, con el alcalde a la cabeza, fue el encargado de presentar el pasado jueves esta "brújula para los próximos años". El acto se celebró en el nuevo salón del Ayuntamiento y contó con la presencia de numerosas personas, muchas de ellas en representación de las asociaciones sociales y culturales que enriquecen cada día Hernani.



















Hernaniko Udala

BURUJABETZEN HERRIAN BIZIKO GARA